



# SALGAIK/MERCANCIAS

**B**

**29/11/2024**





<b>1</b>	<b>Granjetara abereak elikatzeko esne edo esnekiak ontziak eramatea helburu duten garraioak, enpresaren ustiapen zentrotik 100 kilometroko erradioan egiten badira:</b>
a.	takografoa erabiltzera behartuta daude, garraioa publikoa bada.
b.	takografoa erabiltzetik salbuetsita daude, garraioa pribatua bada soilik.
c.	takografo berezi bat eraman behar dute instalatuta.
d.	takografoa erabiltzetik salbuetsita daude.

<b>1</b>	<b>Los transportes que tengan por objeto llevar a las granjas recipientes de leche o productos lácteos destinados a la alimentación del ganado, siempre que se desarrollen íntegramente en un radio de 100 kilómetros alrededor del centro de explotación de la empresa:</b>
a.	están obligados al usar tacógrafo si el transporte es público.
b.	están exentos de utilizar tacógrafo únicamente si el transporte es privado particular.
c.	deben llevar instalado un tacógrafo especial.
d.	están exento de utilizar tacógrafo.

<b>2</b>	<b>Sozietate anonimoari dagokionez, hau esan daiteke:</b>
a.	ezin du soilik bazkide bat izan.
b.	administratzaileek anonimatuaren pribilegioa dute.
c.	bazkideek dituzte akzioak.
d.	aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

<b>2</b>	<b>Respecto de la sociedad anónima, se puede decir que:</b>
a.	no puede tener un único socio.
b.	los administradores tienen el privilegio del anonimato.
c.	los socios son los que tienen acciones.
d.	todas las respuestas anteriores son correctas.

<b>3</b>	<b>Nolakoa da zisterna bat, barrualdearen eta kanpoaldearen arteko bero trukeak mugatzea ahalbidetzeko isolatze-hormak dituen?</b>
a.	Bero-zisterna.
b.	Zisterna isoterma.
c.	Hozkailu zisterna.
d.	Zisterna hozgarria.

<b>3</b>	<b>Una cisterna construida con paredes aislantes que permiten limitar los intercambios de calor entre el interior y el exterior es una cisterna:</b>
a.	calorífica.
b.	isoterma.
c.	frigorífica.
d.	refrigerante.



<b>4</b>	<b>Zenbat eta abiadura aldaketa gehiago egin kamioi baten gidariak igoera batean:</b>
a.	orduan eta gutxiagotan galduko da abiadura.
b.	orduan eta gutxiagotan berreskuratu beharko da abiadura.
c.	orduan eta gehiagotan galduko da abiadura.
d.	orduan eta lehenago iritsiko da gailurrera, gutxiago kontsumituta.

<b>4</b>	<b>Cuantos más cambios realice el conductor de un camión durante una subida:</b>
a.	menos veces se perderá velocidad.
b.	menos veces se tendrá que recuperar la velocidad.
c.	más veces se perderá velocidad.
d.	se llegará antes a la cima habiendo consumido menos.

<b>5</b>	<b>Zein da garraio modurik nabarmenena salgaien barne trafikoa?</b>
a.	Errepidea.
b.	Trenbidea.
c.	Itsas garraioa.
d.	Aireko garraioa.

<b>5</b>	<b>¿Cuál es el modo de transporte más destacado en tráfico interior de mercancías?</b>
a.	La carretera.
b.	El ferrocarril.
c.	El transporte marítimo.
d.	El transporte aéreo.

<b>6</b>	<b>CEMT baimenaren bidez, liberalizatu gabeko salgaien nazioarteko garraioa egin daiteke:</b>
a.	Erakundeko kide diren herrialdeen artean.
b.	Maroko eta Espainia artean bakarrik.
c.	Europako herrialde guztien eta Marokoren artean.
d.	munduko herrialde guztien artean.

<b>6</b>	<b>La autorización CEMT permite realizar transporte internacional de mercancías no liberalizadas entre:</b>
a.	los países miembros de la organización.
b.	Marruecos y España, únicamente.
c.	todos los países europeos y Marruecos.
d.	todos los países del mundo.

<b>7</b>	<b>Kamioiak lortzen duen inklinazioa lor daitekeen gehienekoa bada, edo gehienekotik gertukoa, honetaz ari gara:</b>
a.	euskarri sendoak.
b.	euskarri altuak.
c.	euskarri ahulak.
d.	euskarri aldaketa bat.

<b>7</b>	<b>Quando la inclinación que alcanza el camión es la máxima posible o cercana a la máxima, se habla de:</b>
a.	apoyos fuertes.
b.	apoyos altos.
c.	apoyos débiles.
d.	un cambio de apoyo.



<b>8</b>	<b>Zer dira salgaien garraioko eta logistikako zentroak?</b>
a.	Salgaiak biltegitratzeko tokiak.
b.	Salgaiak hartzeko instalazioak.
c.	Garraioak kontratatzeko instalazio publikoak.
d.	Salgaien garraioko, logistikako eta banaketako jarduerak egiten laguntzeko lekuak.

<b>8</b>	<b>¿Qué son los centros de transporte y logística de mercancías?</b>
a.	Lugares destinados al almacenamiento de mercancías.
b.	Instalaciones destinadas a la recepción de mercancías.
c.	Instalaciones públicas para la contratación de transportes.
d.	Lugares destinados a facilitar el desarrollo de actividades de transporte, logística y distribución de mercancías.

<b>9</b>	<b>CEMT baimen-sisteman sartuta dauden herrialdeen arteko salgaien nazioarteko garraio hauetako zeinek behar du baimena?</b>
a.	Istripua izan duten edo matxuratuta dauden ibilgailuen garraioak.
b.	Animalia bizien garraioak, horretarako modu iraunkorrean egokitutako ibilgailuetan egiten denak.
c.	Etxe-aldaketako garraioak.
d.	Aurreko garraio horietako batek ere ez du baimenik behar.

<b>9</b>	<b>¿Cuál de los siguientes transportes internacionales de mercancías entre países integrados en el sistema de autorizaciones CEMT necesita autorización?</b>
a.	Los transportes de vehículos accidentados o averiados.
b.	Los transportes de animales vivos en vehículos acondicionados de forma permanente para este fin.
c.	Las mudanzas.
d.	Ninguno de los anteriores transportes necesita autorización.

<b>10</b>	<b>Garraio-kostua jasotzaileak ordaintzea itunduta egonik jasotzaileak ordaindu nahi ez badu, eta garraiolariak arrazoi horrengatik salgaiak atxikitzen baditu, zer egin beharko du ondoren?</b>
a.	Salgaien gordailua eta nahitaezko salmenta eskatu beharko du, garraioaren prezioa estaltzeko adinakoa.
b.	Garraioaren ordainketa bidaltzaileari erreklamatu beharko dio.
c.	Jasotzaileari kalte-ordaina eskatu beharko dio.
d.	Ezer ez.

<b>10</b>	<b>Si el consignatario se niega a pagar, habiéndose concertado el transporte a porte debido, y el transportista retiene por esta causa las mercancías, ¿qué deberá hacer este a continuación?</b>
a.	Solicitar el depósito y además la venta forzosa de la mercancía en cantidad para cubrir el precio del transporte.
b.	Reclamar el pago del transporte al expedidor.
c.	Pedir una indemnización al consignatario.
d.	Nada.



<b>11</b>	<b>Etxe-aldaketako garraio batean, nahitaez eduki behar al da bidalketen kontrol-agiria?</b>
a.	Ez.
b.	Bai.
c.	Ibilgailu batek baino gehiagok esku hartzen badute bakarrik.
d.	Hiru ibilgailuk edo gehiagok esku hartzen badute bakarrik.

<b>11</b>	<b>¿Hay obligación de contar con el documento de control de los envíos en un transporte de mudanzas?</b>
a.	No.
b.	Sí.
c.	Solo si interviene más de un vehículo.
d.	Solo si intervienen tres o más vehículos.

<b>12</b>	<b>Nola esaten zaio kamioi baten pneumatikoaren saiheatsaren deformazioaren ondorioz izandako ibilbide-aldaketari?</b>
a.	Lerradura.
b.	Pneumatikoaren deriba.
c.	Balaztatze indarra.
d.	Histeresia.

<b>12</b>	<b>¿Cómo se denomina la variación de la trayectoria registrada a causa de la deformación del flanco del neumático de un camión?</b>
a.	Deslizamiento.
b.	Deriva del neumático.
c.	Fuerza de frenado.
d.	Histéresis.

<b>13</b>	<b>Abiadura handitu ahala:</b>
a.	kamioiak aire gutxiago mugitu behar du denbora berean.
b.	turbulentziak txikiagoak dira.
c.	aire-xurgapena ez da hain indartsua.
d.	turbulentziak handiagoak dira.

<b>13</b>	<b>A medida que aumenta la velocidad:</b>
a.	el camión tiene que desplazar menos cantidad de aire en el mismo tiempo.
b.	las turbulencias son menores.
c.	la succión del aire es menos potente.
d.	las turbulencias son mayores.

<b>14</b>	<b>Harrera-estatuan hutsik sartuz gero, zenbat denboran egin behar dira kabotaje-erregimenean baimendutako salgai garraioak?</b>
a.	Zazpi egunetan.
b.	Hamar egunetan.
c.	Hamabost egunetan.
d.	Ezin da kabotaje-garraiorik egin egoera horretan.

<b>14</b>	<b>Si la entrada en el Estado de acogida se produce en vacío, ¿en cuánto tiempo se han de realizar los transportes de mercancías permitidos en régimen de cabotaje?</b>
a.	En siete días.
b.	En diez días.
c.	En quince días.
d.	No es posible realizar ningún transporte de cabotaje en esas condiciones.



<b>15</b>	<b>Zein zama-ahalmen jasan dezake metalezko paletak?</b>
a.	2.000 kg-ko pisua.
b.	1.000 kg-ko pisua.
c.	3.000 kg-ko pisua.
d.	2.500 kg-ko pisua.

<b>15</b>	<b>¿Qué capacidad de carga puede soportar el palé metálico?</b>
a.	2.000 kg de peso.
b.	1.000 kg de peso.
c.	3.000 kg de peso.
d.	2.500 kg de peso.

<b>16</b>	<b>Enpresako ibilgailu batek baino gehiagok erabil al dezakete CEMT baimen bat aldi berean?</b>
a.	Ez, jatorrizkoa beti ibilgailuaren barruan eraman behar baita.
b.	Bai, baina enpresak kopia bat baino gehiago baldin baditu.
c.	Bai, baina bidaia bera elkarrekin egiten badute bakarrik.
d.	Bai, baina herrialde berean bakarrik.

<b>16</b>	<b>¿Puede ser utilizada una autorización CEMT por más de un vehículo de la empresa a la vez?</b>
a.	No, puesto que el original debe ir siempre a bordo del vehículo.
b.	Sí, pero siempre que la empresa tenga varias copias.
c.	Sí, pero solo si hacen el mismo viaje juntos.
d.	Sí, pero solo dentro del mismo país.

<b>17</b>	<b>Zer ahalbidetzen digu GPS sistemak garraioan?</b>
a.	Salgaiaren egoera une oro ezagutzea.
b.	Ibilgailuen erabileraren ehunekoak ezagutzea.
c.	Ibilgailuen posizioa uneoro ezagutzea.
d.	Errepideen egoera ezagutzea.

<b>17</b>	<b>¿Qué nos permite el sistema GPS en el transporte?</b>
a.	Conocer en cada momento el estado de la mercancía.
b.	Conocer el porcentaje de utilización de los vehículos.
c.	Conocer en todo momento la posición de los vehículos.
d.	Conocer el estado de las carreteras.

<b>18</b>	<b>Indarrean dagoen araudiak ahalbidetzen al du bidesarrietan errekareruak ezartzea?</b>
a.	Bai, mendi-eremuetatik igarotzen diren eta pilaketa-arazoak dituzten autobideetan.
b.	Bai, Estatuak komenigarritzat jotzen dituen autobideetan.
c.	Ez, premia larriko kasuetan bakarrik.
d.	Ez, inola ere ez.

<b>18</b>	<b>¿Permite la normativa vigente establecer recargos en los peajes?</b>
a.	Sí, en autopistas que discurren por zonas de montaña y sufran problemas de congestión.
b.	Sí, en aquellas autopistas que el Estado considera conveniente.
c.	No, solo en caso de urgente necesidad.
d.	No, en ningún caso.



<b>19</b>	<b>Aduana-araudiaren esparruan, zer da operadore ekonomiko baimendu bat?</b>
a.	Produktu jakin bat fabrikatzeko baimena duen enpresa bat.
b.	Edozein salgai esportatzeko eta inportatzeko baimena duen enpresa bat.
c.	Europar Batasun osoan merkaturatzeko baimena duen enpresa bat.
d.	Aduana-kontrolari dagokienez estatutu berezi bat eman zaion enpresa bat.

<b>19</b>	<b>En el marco de la normativa aduanera, ¿qué es un operador económico autorizado?</b>
a.	Una empresa autorizada para fabricar un determinado producto.
b.	Una empresa autorizada para exportar e importar cualquier mercancía.
c.	Una empresa autorizada para comerciar en toda la Unión Europea.
d.	Una empresa a la que se ha concedido un estatuto especial en lo que se refiere a controles aduaneros.

<b>20</b>	<b>CEMT baimen baten babespeko garraioa egiten bada, ibilbide koaderno bat eraman beharko al da ibilgailuan?</b>
a.	Beti.
b.	Inoiz ez.
c.	Karga orokorraren baimenen kasuan bakarrik.
d.	Etxe aldaketetarako baimen espezifikoaren kasuan bakarrik.

<b>20</b>	<b>Si se realiza un transporte amparado en una autorización CEMT, ¿deberá ir a bordo del vehículo un cuaderno de ruta?</b>
a.	Siempre.
b.	Nunca.
c.	Solo en el caso de autorizaciones de carga general.
d.	Solo en el caso de autorizaciones específicas para mudanzas.

<b>21</b>	<b>Ondorengo bereizgarrietatik, zein dago honela osatuta: karratu bat hondo zuria duena, eta baimendutako ibilgailu-motari dagozkion siglak urdin ilunez?</b>
a.	Ibilgailu motelen plaka.
b.	Espainiako nazionalitatearen bereizgarria.
c.	Salgai galkorren garraioaren bereizgarria.
d.	Zerbitzu publikoaren plaka.

<b>21</b>	<b>¿Cuál de los siguiente distintivos es el que está formado por un cuadrado con fondo de color blanco y las siglas correspondientes al tipo de vehículo autorizado en color azul oscuro?</b>
a.	Placa de vehículo lento.
b.	Distintivo de nacionalidad española.
c.	Distintivo de transporte de mercancías perecederas.
d.	Placa de servicio público.





<b>22</b>	<b>Nazioarteko garraioan, zeri esaten zaie eragiketa triangularrak?</b>
a.	Hiru herrialderen arteko garraioei.
b.	Europar Batasuneko bi herrialderen eta Europar Batasunetik kanpoko beste herrialde baten arteko garraioei.
c.	Garraiolaria, ibilgailua eta ibilbidea estatu desberdinetakoak diren eragiketei.
d.	Estatu batean matrikulatutako ibilgailu batek herrialde hori ez den beste bi herrialderen artean egindako garraioei.

<b>22</b>	<b>En el transporte internacional, ¿a qué se denomina operaciones triangulares?</b>
a.	A los transportes entre tres países.
b.	A los transportes entre dos países comunitarios y un tercer país extracomunitario.
c.	A las operaciones en que transportista, vehículo e itinerario son de distinto estado.
d.	A los transportes realizados entre dos países por un vehículo matriculado en un tercer estado.

<b>23</b>	<b>Aipatzen diren indarretatik, zeintzuk aplikatzen zaizkio mugitzen ari den kamioi bati?</b>
a.	Indar eragilea eta balaztatze-indarra.
b.	Gidatze-indar atemporal eta marruskadura-indarra.
c.	Azelerazioaren indarra da kamioi baten mugimenduari aplikatzen zaion indar bakarra.
d.	Gainbiratze eta azpibiratze indarrak.

<b>23</b>	<b>De las que se citan, ¿qué fuerzas se aplican a un camión en movimiento?</b>
a.	La fuerza motriz y la fuerza de frenado.
b.	La fuerza de guiado atemporal y la fuerza de fricción.
c.	La fuerza de la aceleración es la única fuerza que se aplica al movimiento de un camión.
d.	Las fuerzas de superviraje y de infraviraje.

<b>24</b>	<b>Zer hartu behar da kontuan salgaien garraioa egin ahal izateko?</b>
a.	Baimendutako gehieneko masak.
b.	Administrazio izapideak.
c.	Kamm-en teorema kalkulatzeko.
d.	Garraioa alde aurretik egiaztatzea.

<b>24</b>	<b>¿Qué se debe tener en cuenta para poder realizar un transporte de mercancías?</b>
a.	Las masas máximas permitidas.
b.	Los trámites administrativos.
c.	Calcular el teorema de Kamm.
d.	Hacer una comprobación previa del transporte.

<b>25</b>	<b>Ardatz bereko eskuin eta ezker gurpiletako kargen arteko aldeak ez luke gainditu behar:</b>
a.	ardatzaren gaineko karga osoaren % 50.
b.	ardatzaren gaineko karga osoaren % 3.
c.	ardatzaren gaineko karga osoaren % 15.
d.	ez da alderik egon behar.

<b>25</b>	<b>La diferencia entre las cargas sobre la rueda derecha e izquierda de un mismo eje no debería sobrepasar:</b>
a.	el 50 % de la carga total sobre el eje.
b.	el 3 % de la carga total sobre el eje.
c.	el 15 % de la carga total sobre el eje.
d.	no debe existir ninguna diferencia.



26 Nola egin daiteke eguneko atsedenaldi normala, bi alditan zatitzen denean?	
a.	Lehenengoak gutxienez 4 orduko iraupen jarraitua izango du, eta bigarrenak 8 ordukoa, gutxienez.
b.	Lehenengoak gutxienez 3 orduko iraupen jarraitua izan beharko du, eta bigarrenak 9 ordukoa, gutxienez.
c.	Lehenengoak gutxienez 9 orduko iraupen jarraitua izan beharko du, eta bigarrenak 3 ordukoa, gutxienez.
d.	Gidariak nahi duen bezala, betiere 12 ordu batzen badituzte.

26 ¿Cómo puede tomarse el descanso diario normal cuando se fracciona en dos períodos?	
a.	El primero deberá tener una duración ininterrumpida mínima de 4 horas y el segundo, una duración ininterrumpida mínima de 8 horas.
b.	El primero deberá tener una duración ininterrumpida mínima de 3 horas y el segundo, una duración ininterrumpida mínima de 9 horas.
c.	El primero deberá tener una duración ininterrumpida mínima de 9 horas y el segundo, una duración ininterrumpida mínima de 3 horas.
d.	Como lo considere el conductor siempre que sumen 12 horas.

27 Trafiko-istripu batean zauritutakoei laguntzeari dagokionez, adierazi baieztape hauetako zein den okerra:	
a.	Zauritua ibilgailutik kanpo badago, soilik haren osotasuna babesteko mugitu behar da; adibidez, harrapatua izateko arrisku larrian badago.
b.	Zaurituren bat ibilgailuaren barruan badago eta han bertan artatu badaiteke, ez da kanpora ateratzeko saiakerarik egin behar.
c.	Zaurituren bat dagoenean, egin beharreko lehenengo gauza zauritua istripu-lekutik ateratzea da beti.
d.	Zaurituak ez dira mugitu behar, ezta iraulketa gertatu bada ere, salbu eta sutea gertatzeko berehalako arriskua badago edo muturreko beste egoeraren bat gertatzen bada.

27 En relación con el auxilio a los heridos de un accidente de tráfico, señale cuál de las siguientes afirmaciones es incorrecta:	
a.	Si el herido se encuentra fuera del vehículo, únicamente se debe moverlo para proteger su integridad, por ejemplo, en caso de que se encuentre expuesto a riesgo grave de atropello.
b.	Si algún herido permanece dentro del vehículo y se le puede atender allí mismo, no se debe intentar sacarlo al exterior.
c.	La primera actuación ante un herido es siempre sacarlo del lugar del accidente.
d.	No debe moverse a los heridos, incluso en caso de vuelco, salvo peligro inminente de incendio u otra circunstancia extrema.

28 Zer elementu da funtsezkoa gidatzearen inguruko erabakiak hartzeko?	
a.	Abiadura.
b.	Istripu arriskuaren pertzepzioa.
c.	Eguraldia.
d.	Egindako atsedenaldiak.

28 ¿Qué elemento es fundamental en la toma de decisiones en la conducción?	
a.	La velocidad.
b.	La percepción del riesgo de accidente.
c.	El tiempo.
d.	Los descansos efectuados.



<b>29</b>	<b>Zer adierazten du BAS siglak, ibilgailu batek su hartzean egin beharrekoari dagokionez?</b>
a.	Baratu, amatatu eta sua itzali.
b.	Babestu, abisatu eta sorotsi.
c.	Baratu, abisatu eta sorotsi.
d.	Babestu, abisatu eta seinaleztatu.

<b>29</b>	<b>¿Qué significan las siglas "PAS" en relación con la actuación ante el incendio de un vehículo?</b>
a.	Parar, apagar y sofocar.
b.	Proteger, alertar y socorrer.
c.	Parar, avisar y socorrer.
d.	Proteger, avisar y señalar.

<b>30</b>	<b>Medikamentuen eta alkoholaren nahasketa:</b>
a.	gomendagarria da, medikamentuen eraginkortasuna handitzen baitu.
b.	ez du eragin berezirik, alkoholak ez baitu interakziorik medikamentuekin.
c.	gidariak nekez kontrola ditzakeen eta aurreikusi ezin daitezkeen erreakzioak eragin ditzake.
d.	aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

<b>30</b>	<b>La mezcla de medicamentos y alcohol:</b>
a.	es aconsejable, ya que aumenta la efectividad de los medicamentos.
b.	no tiene efecto especial alguno, ya que el alcohol no interactúa con los medicamentos.
c.	puede producir reacciones imprevisibles y difícilmente controlables por el conductor.
d.	todas las respuestas anteriores son correctas.

<b>31</b>	<b>Trafiko-istripu bateko polizia-atestatuaz ari garela, zer da egia?</b>
a.	Istripuaren inguruabarrak jasotzen ditu.
b.	Eragindakoren batek eskatzen duenean bakarrik egiten da.
c.	Isilpekoa da.
d.	Erantzun guztiak zuzenak dira.

<b>31</b>	<b>El atestado policial de un accidente de tráfico:</b>
a.	recoge las circunstancias del accidente.
b.	solo se realiza cuando lo solicita algún afectado.
c.	es secreto.
d.	todas las respuestas son correctas.

<b>32</b>	<b>Zenbat gainditu behar da herri barruko bideetan baimendutako abiadura, jokabide hori bide segurtasunaren aurkako delitutzat har dadin?</b>
a.	80 km/h.
b.	100 km/h.
c.	60 km/h.
d.	Baimendutako abiadura gainditzea arau-hauste administratiboa da, baina ez delitua.

<b>32</b>	<b>¿En cuánto se debe sobrepasar la velocidad permitida en una vía urbana para que dicha conducta se considere delito contra la seguridad vial?</b>
a.	En 80 km/h.
b.	En 100 km/h.
c.	En 60 km/h.
d.	Superar la velocidad permitida es una infracción administrativa, pero nunca un delito.



<b>33</b>	<b>Zirkulazio istripu batean zauritutako pertsona bati laguntzean, zer ez dugu egin behar?</b>
a.	Tapaki batez estali.
b.	Lepoa eta bizkarrezurra mugitu.
c.	Lurrean jarri.
d.	Geldirik egon dadin galarazi, komenigarria baita oinez ibiltzea edo ahalik eta gehien mugitzea.

<b>33</b>	<b>Al socorrer a un herido en un accidente de circulación, debemos evitar:</b>
a.	taparlo con una manta.
b.	moverle el cuello y la columna.
c.	ponerlo sobre el suelo.
d.	que permanezca quieto, porque es conveniente que ande o se mueva lo más posible.

<b>34</b>	<b>Administrazioak zenbatean behin kontrolatu behar ditu GGA enpresa batek erabiltzen dituen ikasgela mugikorrak?</b>
a.	Bi urtean behin, gutxienez.
b.	Bost urtean behin, gutxienez.
c.	Hamar urtean behin, gutxienez.
d.	Ez dago aldizkakotasunik ezarrita; kasu bakoitzaren egoera zehatza hartuko da kontuan.

<b>34</b>	<b>¿Con qué periodicidad se debe llevar a cabo por la Administración el control de las aulas móviles que utiliza una empresa CAP?</b>
a.	Al menos, cada dos años.
b.	Al menos, cada cinco años.
c.	Al menos, cada diez años.
d.	No hay establecida ninguna periodicidad; se atenderá a las condiciones concretas de cada caso.

<b>35</b>	<b>Gidatzen laguntzeko zein sistemari dagokio ACC sigla?</b>
a.	Segurtasun tartea mantentze aldera abiadura kontrolatzen duen sistemari.
b.	Argiztapen-sistema kontrolatzeko sistemari.
c.	Oinezkoekin eta txirrindulariekin talka egitearen alerta sistemari.
d.	Angelu hila kontrolatzeko sistemari.

<b>35</b>	<b>¿A qué sistema de ayuda a la conducción corresponden las siglas ACC?</b>
a.	Al de control de cruceo adaptativo.
b.	Al de control del sistema de alumbrado.
c.	Al de alerta de colisión con peatones y ciclistas.
d.	Al de control de ángulo muerto.

<b>36</b>	<b>Zein da ibilgailu elektriko baten litiozko bateriaren ezaugarri bat?</b>
a.	Ez du karga partzialik onartzen.
b.	Ez du mantentze lanik behar.
c.	Kadmiozkoak baino autonomia txikiagoa du.
d.	Zinkezkoak baino pisu handiagoa du.

<b>36</b>	<b>¿Cuál es una característica de la batería de Litio de un vehículo eléctrico?</b>
a.	No permite cargas parciales.
b.	No requiere mantenimiento.
c.	Tiene menor autonomía que la de Cadmio.
d.	Tiene un mayor peso que la de Zinc.



37 Zeren kausa dira trafiko istripuak?	
a.	Traumatismoak eragindako bizkarrezur muineko lesioaren lehen kausa.
b.	Nahasmendu neurologikoen bigarren kausa.
c.	Lanerako ezintasunaren lehen kausa da helduen artean.
d.	Erantzun guztiak zuzenak dira.

37 Los accidentes de tráfico son:	
a.	la primera causa de lesión medular por traumatismo.
b.	la segunda causa en trastornos neurológicos.
c.	la primera causa de incapacidad laboral en adultos.
d.	todas las respuestas son correctas.

38 Ibilgailu astunen erregai-kontsumoa murrizteko neurri egokia da:	
a.	abiadura ahalik eta konstanteen mantentzea.
b.	ibilgailuaren inertzia ez erabiltzea.
c.	azeleratzeari utzi eta berehala balaztatzea.
d.	motorra biraketa-abiadura handian eramatea.

38 Una buena medida para reducir el consumo de carburante de un vehículo pesado es:	
a.	mantener la velocidad lo más constante posible.
b.	no utilizar la inercia del vehículo.
c.	frenar inmediatamente después de dejar de acelerar.
d.	llevar el motor revolucionado.

39 Dagokien gidabaimena ez duten gidariek egin al ditzakete hasierako kualifikazioko ikastaroak?	
a.	Ez.
b.	Bai.
c.	Bai, baina bidaiarien garraioko ibilgailuetarako bakarrik.
d.	Bai, baina salgaien garraioko ibilgailuetarako bakarrik.

39 ¿Pueden seguir los cursos de cualificación inicial los conductores que no posean el permiso de conducir correspondiente?	
a.	No.
b.	Sí.
c.	Sí, pero solo para vehículos de viajeros.
d.	Sí, pero solo para vehículos de mercancías.

40 Non eraman behar da ikuspen handiko txaleko islatzailea?	
a.	Gidariak ibilgailutik jaitsi aurretik hartzeko eta jartzeko moduko toki batean.
b.	Nahitaezko su-itxalgailuaren eta arriskuaz ohartarazteko triangeluen ondoan.
c.	Gidariak ibilgailutik jaitsi ondoren hartzeko eta jartzeko moduko toki batean.
d.	Botikinaren ondoan, maletategian.

40 ¿Dónde se debe llevar el chaleco reflectante de alta visibilidad?	
a.	En un lugar donde el conductor pueda alcanzarlo y colocárselo antes de bajarse del vehículo.
b.	Junto al extintor obligatorio y los triángulos de preseñalización de peligro.
c.	En un lugar donde el conductor pueda alcanzarlo y colocárselo después de bajarse del vehículo.
d.	Junto al botiquín, en el maletero.



<b>41</b>	<b>Adiskidetasunezko istripu-adierazpenen kasuan, nola egozten da istripuaren erruduntasuna?</b>
a.	Benetan gertatu denaren arabera.
b.	Agintaritzaren agente batek egindako partearen arabera.
c.	Espainiako Zuzeneko Kalte-ordainen Hitzarmeneko (CIDE) taula baten arabera.
d.	Lekuko presentzialen testigantzen arabera.

<b>41</b>	<b>En caso de declaración amistosa de accidente, ¿cómo se imputa la culpabilidad del mismo?</b>
a.	Según lo que haya pasado realmente.
b.	Según el parte hecho por un agente de la autoridad.
c.	Según una tabla que forma parte integrante del Convenio de Indemnización Directa Español (CIDE).
d.	Según el testimonio de los testigos presenciales.

<b>42</b>	<b>Gidaldiei eta atsedenaldiei buruzko araudiak nola deitzen dio eguneko atsedaldi baten amaieraren eta hurrengo eguneko atsedaldiaren hasieraren arteko gidaldi metatu osoari?</b>
a.	Asteko gidaldia.
b.	Eguneko gidaldia.
c.	Etenik gabeko gidaldia.
d.	Bi astez behingo gidaldia.

<b>42</b>	<b>¿Cómo denomina la normativa de tiempos de conducción y descanso al tiempo acumulado total de conducción entre el final de un período de descanso diario y el principio del siguiente período de descanso diario?</b>
a.	Tiempo semanal de conducción.
b.	Tiempo diario de conducción.
c.	Conducción ininterrumpida.
d.	Conducción bisemanal.

<b>43</b>	<b>Laneko arriskuei dagokienez, enpresaburuak betebeharrak dituzte:</b>
a.	zehaztu zein lanpostuk erabili behar dituzten babesak.
b.	adierazi zer babes-ekipamendu behar den.
c.	norbera babesteko ekipamenduen mantentze-lanak zaindu.
d.	erantzun guztiak zuzenak dira.

<b>43</b>	<b>Respecto de los riesgos en el trabajo, el empresario está obligado a:</b>
a.	determinar qué puestos deben usar protecciones.
b.	indicar el equipo de protección necesario.
c.	cuidar el mantenimiento de los equipos individuales de protección.
d.	todas las respuestas son correctas.

<b>44</b>	<b>Zein da, karga behar bezala banatuta dagoela egiaztatzeko, ibilgailuaren barrualdea grabatzen duen sistema?</b>
a.	VSTC.
b.	IVMS.
c.	FCW.
d.	ABSP.

<b>44</b>	<b>¿Cuál es el sistema que grava el interior del vehículo para comprobar la correcta distribución de la carga?</b>
a.	VSTC.
b.	IVMS.
c.	FCW.
d.	ABSP.



<b>45</b>	<b>Adiskidetasunezko adierazpenean, jaso al daitezke inplikaturako edozein gidariren ohar partikularrak?</b>
a.	Ez.
b.	Bai.
c.	Bakoitzak nahi duena idatzi ahal izango du bere kopian.
d.	Denak ados badaude bakarrik.

<b>45</b>	<b>En la declaración amistosa, ¿podrán anotarse observaciones particulares de cualquiera de los conductores implicados?</b>
a.	No.
b.	Sí.
c.	Cada uno podrá anotar lo que quiera en su copia.
d.	Solo si todos están de acuerdo.

<b>46</b>	<b>Auto batean motorraren minutuko biraketa-kopuru jakin batean zirkulatzen badugu, kontsumoa txikiagoa izango da:</b>
a.	zenbat eta karga handiagoa eraman ibilgailuak.
b.	zenbat eta laburragoa izan martxa erlazioa.
c.	zenbat eta luzeagoa izan martxa erlazioa.
d.	zenbat eta handiagoa izan ibilgailuaren koefiziente aerodinamikoak.

<b>46</b>	<b>Circulando con un automóvil a un número determinado de revoluciones por minuto del motor, el consumo será menor:</b>
a.	cuanto más cargado circule el vehículo.
b.	cuanto más corta sea la relación de marchas.
c.	cuanto más larga sea la relación de marchas.
d.	cuanto mayor sea el coeficiente aerodinámico del vehículo.

<b>47</b>	<b>Zerk eragiten du automobil baten erregai kontsumoan?</b>
a.	Pneumatikoen presioak eta pistoiaren luzerak.
b.	Ibilgailuaren mantentze-lanak eta bateriaren tentsioak.
c.	Azeleragailu pedalaren posizioak eta birabarkiareneko luzerak.
d.	Abiadura kaxan hautatutako martxa erlazioak eta pneumatikoen presioak.

<b>47</b>	<b>¿Qué influye en el consumo de carburante de un automóvil?</b>
a.	La presión de los neumáticos y la longitud del pistón.
b.	El mantenimiento del vehículo y el voltaje que suministre la batería.
c.	La posición del pedal del acelerador y la longitud del cigüeñal.
d.	La relación de marchas seleccionada en la caja de velocidades y la presión de los neumáticos.

<b>48</b>	<b>Ibilgailuetako suteen kausak honako hauekin lotuta egon ohi dira:</b>
a.	egoera txarrean dauden ibilgailuen zirkuitu elektrikoak.
b.	erregai ihesak.
c.	motorraren berotzeak.
d.	aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

<b>48</b>	<b>Las causas de los incendios en los vehículos suelen estar relacionadas con:</b>
a.	circuitos eléctricos de los vehículos en mal estado.
b.	fugas de combustible.
c.	calentamiento del motor.
d.	todas las respuestas anteriores son correctas.



<b>49</b>	<b>Zeintzuk jotzen dira segurtasunez gidatzeko oinarrizko prebentzio-neurritzat?</b>
a.	Ibilgailua edozein egoera fisiko edo psikikotan gidatzea.
b.	Zirkulazio arauak errespetatzea.
c.	Edozein motatako edari energetikoak edatea.
d.	Maniobrak egiten ari direnean, seinalezatzea.

<b>49</b>	<b>¿Cuáles son consideradas medidas preventivas básicas para una conducción segura?</b>
a.	Conducir el vehículo en cualquier tipo de condición física o psíquica.
b.	Respetar las normas de circulación.
c.	Ingerir bebidas energéticas de cualquier tipo.
d.	Señalizar las maniobras cuando se estén realizando.

<b>50</b>	<b>Zer gomendio jarraitzea komeni da erregai-kontsumoa optimizatzeko, beheranzko maldetan gidatzean?</b>
a.	Biraketa-erregimen oso altua, azeleratzen ez den bitartean, harik eta bibrazioak agertu arte.
b.	Azeleragailuaren pedala gutxi zapalduta edukitzea.
c.	Azeleragailuaren pedala zapalduta edukitzea.
d.	Hautatutako transmisio-erlazioa asko murriztea.

<b>50</b>	<b>¿Qué recomendación es conveniente seguir para optimizar el consumo de carburante conduciendo en pendientes descendentes?</b>
a.	Régimen de giro muy alto, mientras no se acelera, hasta que aparezcan las vibraciones.
b.	Mantener el pedal acelerador poco pisado.
c.	Mantener el pedal acelerador presionado.
d.	Reducir mucho la relación de transmisión seleccionada.

<b>51</b>	<b>Izaera pribatu osagarriko salgaien garraioak, nekazaritza enpresek beren enpresa-jardueraren esparruan egiten dituztenak eta oso-osorik enpresaren ustiapen zentroetik 100 kilometroko erradioan egiten direnak:</b>
a.	salbuetsita daude takografoa instalatuta eramaten.
b.	takografo berezi bat eraman behar dute instalatuta.
c.	takografo digital bat eraman behar dute instalatuta.
d.	takografo analogiko bat eraman behar dute instalatuta.

<b>51</b>	<b>Los transportes de mercancías de carácter privado complementario, realizados en el marco de su propia actividad empresarial por empresas agrícolas que se desarrollen íntegramente en un radio de 100 kilómetros alrededor del centro de explotación de la empresa:</b>
a.	están exentos de llevar instalado tacógrafo.
b.	deben llevar instalado un tacógrafo especial.
c.	deben llevar instalado tacógrafo, pero digital.
d.	deben llevar instalado tacógrafo, pero analógico.





<b>52</b>	<b>Harrapaketa bat gertatuz gero, zein abiaduratan dago % 90eko aukera biktimaren buruan lesio hilgarriak eragiteko?</b>
a.	60 km/h.
b.	50 km/h.
c.	40 km/h.
d.	30 km/h.

<b>52</b>	<b>¿A qué velocidad, un atropello tiene un 90 % de posibilidades de producir lesiones fatales en la cabeza de la víctima?</b>
a.	60 km/h.
b.	50 km/h.
c.	40 km/h.
d.	30 km/h.

<b>53</b>	<b>Zer gertatzen da ihes hodian, motor-frenatzea erabiltzean?</b>
a.	Moteltzeko zilindroa itzali egiten da.
b.	Azelerazio balbularen biraketa kopuruak gora egiten du.
c.	Azelerazio balbularen biraketa kopuruak behera egiten du.
d.	Ihes gasen irteera mugatzen da, eta pistoien desplazamendua geldiarazten da.

<b>53</b>	<b>Al accionar el freno motor en el escape:</b>
a.	el cilindro de amortiguación se apaga.
b.	la válvula de aceleración sube de revoluciones.
c.	la válvula de aceleración baja de revoluciones.
d.	se limita la salida de gases de escape, frenando el desplazamiento de los pistones.

<b>54</b>	<b>Zein gidarientzat ez da beharrezkoa gidarien gaitasun agiria (GGA)?</b>
a.	Eskola praktikoetan eta gidabaimena lortzeko azterketetan erabiltzen diren ibilgailuen gidarientzat, baldin eta jarduera horietan garraiorik egiten ez bada.
b.	Salgaiak garraiatzeko ibilgailuen gidarientzat, baimendutako gehieneko abiadura orduko 90 kilometrokoa bada.
c.	45 plaza baino gehiago dituzten autobusen gidarientzat.
d.	10.000 kg-tik gorako Baimendutako Gehieneko Masa duten kamioien gidarientzat.

<b>54</b>	<b>¿Para qué conductores no es necesario el certificado de aptitud profesional (CAP)?</b>
a.	Para los conductores de vehículos utilizados en las clases prácticas y en los exámenes destinados a la obtención del permiso de conducción, siempre que no se realice un transporte durante dichas actividades.
b.	Para los conductores de vehículos de transporte de mercancías que desarrollen una velocidad máxima autorizada de 90 kilómetros por hora.
